

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Txakurren Iribarrea proiektuaren asmoa, txakurtegiak ahalik eta janari eta produktu gehien bidaltzea da, hau da, txakurtegiak elikagaien eta produktuen banku bat gara.

Gure proiektua urtero txakurrek sufritzen dituzten hainbat arazo eta gertakizunei aurre egiteko asmoarekin sortu da. Adibidez, Araban soilik 2016an 900 txakur inguru abandonatu egin ziren eta horietako askok familia berri bat izatea lortu zuten arren, ehunka eta ehunka txakurrek txakurtegi askotan bukatu zuten. Txakurtegien egoera, beraz, geroz eta konplexuagoa bihurtzen ari da, izan ere, geroz eta txakur gehiago jasotzen dituzte bertan eta horrek, txakurren mantenimendurako kostuek esponentzialki gora egiteak ekarri du.

Txakur bat abandonatzearen arrazoia, askotan, txakur baten mantenimenduaren kostua da, urtean 1500€-koa izatera heldu daitekeelako. Bestetan, jabeen arduragabekeria, animaliaz aspertzea edota txakurraren jarrera kaxkarra dela eta uzten dira txakurrak kalean. Krisialdiak eta familien errenta erabilgarriaren beherakadak ere eragina izan zuen egoera honetan.

Guzti honi aurre egiteko, TXAKURREN IRRIBARREA proiektua sortu dugu. Ilusioz beterik sortutako proiektua da, txakurtegiei ahalik eta laguntza gehien ematea helburu duena. Herritarren eta bolondreski gurekin elkarlanean aritu nahi duten pertsonen ekarpenetatik abiatuta, txakurrentzako janari eta beste materialak bildu eta txakurtegiak bidaliko dira. Urtean zenbait alditan, Gabonetan, Aste Santuan eta uztailean 21ean (Txakurraren Egun Internazionala dela aprobetxatuz), elikagai/ produktuen eta diru (donazioak) bilketa kanpainak egingo dira Arabako herri garrantzitsuenetako supermerkatu eta plazetan. Bertara hurbiltzen diren pertsonak gure saskian txakurrentzako edozein material utzi dezakete. Bildutako material guztia Arabako txakurtegi guztietara bidaliko da. Antzerako beste proiektuak ez bezala, gurek elikagaiak biltzeaz gain, txakurren zainketa bermatzeko ondasunak ere jasoko ditu, hala nola, garbiketa produktuak, osasunerako materialak, koltxonetak, jostailuak...

Horretaz gain, hainbat ekintza egingo ditugu urtean zehar: hala nola, txakurrekin frisbee edo futbol torneoak antolatzen ditugu, baita cani-cross solidarioak ere. Ekintza hauetan parte hartu nahi duten pertsonen inskripzioekin lortutako dirua txakurtegiak behar dituzten elikagai eta produktuak erosteko ere bideratuko dugu.

Arabako txakurtegi guztiekin eta Banco de Alimentos Araba erakundearekin elkarlanean dihardugu, beraz, haiekin zuzeneko kontaktua daukagu. Horretaz gain, jendeak gure proiektuaren berri jaso dezan, txakurrekin zerikusia duten enpresekin elkarlanean aritzen gara, adibidez, albaitaritza zentroekin.

Gure elkartearen giza taldea bolondresak osatzen dute, hau da, borondatez proiektu honetan sinestu eta parte hartzen duten pertsonak. Izan ere, irabazi asmorik gabeko elkarte bat gara. Bolondresak proiektua kudeatu eta martxan jartzen diren ekintzak aurrera eramateko lana egingo dute eta guztiak txakurrak maite dituzten pertsonak dira.